





## AKTUALITATEA, HEMEN ETA KANPOAN

### **UPV/EHUREN BIZKAIKO CAMPUSAK, AIARALDEAK ETA ZAMUDIO, BERGARA ETA BARAKALDOKO UDALEK BAT EGIN DUTE EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN PROGRAMAREKIN**

Bost erakunde publikok beren atxikimendua formalizatu dute berriki Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Euskadiko 2020ko Programarekiko, kontratazioetan ingurumen-irizpideak txertatuz joateko asmoz. Horiekin, 41 dira programarekin bat egin duten erakundeak.

### **EUROPAKO PARLAMENTUAK KONTRATAZIO PUBLIKOAK ESTRATEGIKOKI ERABILTZEAREN GARRANTZIA NABARMENDU DU**

2018ko urriaren 4ko Ebazpenaren bidez –«Kontratazio publikoaren strategiako neurrien paketea» izenekoa, urtarrilean argitaratua–, Europako Parlamentuak zenbait adierazpen egin zituen kontratazio publikoari buruz, horien artean, estatu kideek jarraibideak eta maila goreneko babesak emateko beharra. Helburua da kontratazio berritzailearen eta ekologikoaren erabilera orokortzea, hazkunde adimentsua, ekologikoa eta barnerratzailea lortzeko eta ekonomia zirkularra indartzeko.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

### **EUROPAKO BATZORDEAK ORIENTAZIOA ETA BITARTEKOAK EMANGO DITU INBERTSIO JASANGARRIAK EGITEKO**

Europako Batzordearen (EB) «Europa Jasangarrirako Inbertsio Plana. Europako Itun Berdearen Inbertsio Plana» (azken COM/2020/21) komunikazioak nabarmentzen du sektore publikoa dela inbertitzaile nagusia zenbait sektoretan; bereziki, azpiegiturenean eta zerbitzu publikoenean. Horregatik, EBk erosketa berdeko nahitaezko irizpideak proposatuko ditu, edota hainbat helburu, sektoreko ekimenetako kontratazio publikorako, EBren finantzaketarako eta produktu jakin batzuen gaineko legeetarako. Gainera, erosleak animatzen ditu bizi-zikloaren kostua kalkulatzeko metodologiak aplikatu ditzatela ahal den guztietan.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

### **GIDA: ERABILI ETA BOTATZEKO PLASTIKOAK NOLA TRATATU KONTRATAZIOAREN BIDEZ**

Erabilera bakarreko plastikoak, elikagaien sektorekoak eta bilgarriak batez ere, erosketa eta kontratazio berdearen bitartez gutxitzeko ikuspuntua, irizpideak eta jardunbide egokiak proposatzen ditu gida honek. Xede nagusia da itsasoan eta kostean kutsadura gutxitzea. Euskadiko sektore publikoaren adibide ugari jasotzen ditu.

Informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)

## EUROPAKO OSASUN-SEKTOREKO JARDUNBIDE EGOKIEN MULTZOA

Europako arreta sanitarioaren sektoreko erosketa jasangarriko jardunbide egokien multzo bat argitaratu du *Health Care Without Harm Europe* sareak. Askotariko produktuak (elikagaiak, plastikoak eta mugikortasunekoak, kasu) eta ikuspuntuak (banakoak, eskualdeak eta nazioartea) jorratzen ditu.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)



## TRESNAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK EUSKADIN

### FSC ETA PEFC ZIURTAGIRIAK ETA HORIEN ERABILERA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan nola erabili hobeto ulertzeko, Ihobek dokumentu bat argitaratu du bi ziurtagiriei buruzko azalpenekin, ziurtagiria duten produktuen arteko aldeekin eta kontratazioan erabiltzeko moduari buruzko informazioarekin.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

### JARDUNBIDE EGOKIA: EUSKO LEGEBILTZARREKO ERAIKINETARAKO ETA GARAJEETARAKO ELEKTRIZITATE % 100 BERRIZTAGARRIA HORNITZEA

Eskura dago Eusko Legebiltzarrak energia elektrikoaren hornidurarako deitutako lizitazioaren gaineko jardunbide egokia. Hor azaltzen da erakundeak elektrizitatearen kontratazioan izandako bilakaera, egindako hobekuntzak eta aurreikusituen ingurumen-onurak.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)



## ARLO BERRIAK

### NBEREN TXOSTEN BERRIA, EROSKETA BERDEAREN ONURAK KALKULATZEKO ESPERIENTZIEI BURUZ

NBEk txosten bat argitaratu du Koreako Errepublikako erosketa berdeari buruz. Erosketa berdearen eragin onuragarriak kalkulatzeko metodologiaren egoera aztertzen du, eta zenbait gobernuk ingurumen-irizpideak erabilia kontratatzearen onurak kalkulatzeko erabili dituzten moduen zehaztasunak biltzen ditu.

Informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)

### EUROPAREN BABESA BERRIKUNTZARI DAGOZKION KONTRATAZIO-EKIMENEI

EBko estatuetakoko erakunde publikoek apirilaren 15era bitarte aurkez ditzakete hautagaitzak berrikuntzari dagozkion kontratazioetarako babes teknikoa eta/edo lege-babesa lortzeko. Horien artean daude itun berdeen, adimen artifizialaren, zibersegurtasunaren, *blockchain* delakoaren eta estrategia digitalen edo IKTen gaineko proiektuak.

Informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)

Informazio gehiago: [www.ihobe.eus/](http://www.ihobe.eus/)

Edozein iruzkin, ekarpen edo edukiari buruzko iradokizun egiteko, jo Ihobera:

- Telefonoa: **94 423 07 43**
- Helbide elektronikoa: [compra.verde@ihobe.eus](mailto:compra.verde@ihobe.eus)